



GORPUTZ HEZKUNTZA IDAKIN EGITEKO ANTOLAKETA

2015/2016 ikasturtean, institutuan kirola egiteko espazio falta zela eta, bai 3. mailakoak bai 4. mailako ikasleak Gorputz Heziketa egiteko Idaki kirol instalakuntzara joatea adostu zen. Erabaki honek denbora ez galtzeko eta bidaiak gutxitzeko antolaketa berezia egitea zekarren. Hori dela eta, Zuzendaritzak eta Gorputz Heziketako irakasleek honako hau adostu zuten:

Hasierako orduetan:

- 8:30ean ikasleak eta irakaslea Idakin bertan agertzea. Irakasleak materiala behar badu, institutik pasatu behar du Idakira joan aurretik. Ondoren, 10:00etan aldageletara joaten dira eta atera ahala institutura abiatzen dira ezkerreko espaloitik. Irakaslea instalakuntzan geratzen da azken ikaslea atera arte. Gero, irakasleak aldagelak itxi behar ditu eta, azkenik, giltza entregatu. Behin lan hau behin eginda institutura joaten da.

Azken orduetan:

- 12:40ean ikasleak, ikasgelatik atera ahala, eskuineko espaloitik abiatzen dira IDAKIrantz. Gorputz Heziketako irakaslea atean egoten da azken ikaslea ikastetxetik atera arte. Irakaslea IDAKIra joaten da eta ikasleak baino lehen iristen da giltza eskatzeko, aldagelak irekitzeko eta egunero behar duen materiala prestatzeko.

-14:30ean ikasleak Idakitik etxera joango dira eta irakaslea instalakuntzan geratuko da dena behar bezala uzteko.

Oharra: txirrindulak erabiltzekotan indarrean dauden arauak beteko direla bermatu behar da.

Ikus dezakezuen bezala, kudeaketa ez da batere erraza eta, gainera, badu beste eragozpen bat ere. Izan ere, irakasleak materiala eramaten eta ekartzen ibili behar du. Hala eta guztiz ere, orain arte honek guztiak ongi eta inolako arazorik gabe funtzionatu du eta, horrenbestez, balorazioa positiboa da.

Baina familia batzuek duten zalantza dela eta, Hezkuntza Departamentuan galdetu ondoren, gure elkarbizitza araudian sartuko dugu azaldutako antolaketa.

Horrela ager dezala, Iruñian 2019ko urtarrilaren 16an.